

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Idea gurea izan bada ere, gure jarduera ez dago makinak egitera bideratua, hortaz, hasierako pausoetarako eta ondorengoetarako bat egin beharko dugu beste enpresa eta norbanako batzuekin.

Gure ideia azalduta **diseinatzaile** batek honen itxura ezezik barruko funtzionamendua nola egingo den jakinda makina bera nolakoa izango den azaldu beharko du irudiz ezezik makinaren beraren osaera eta funtzionamendua kontuan hartuta. Horretarako diseinatzailea behar luke, noski, baina tamaina txikiko makinetara egokitua. Diseinatzailea adierazi arren, hori egiteko, gaur egun **ingeniariek** dute jakintza zehatza. Beraz, gai honetan aditua den ingeniari batek diseinatuko luke makina.

Makina bera eraikitzeke enpresa batekin egin beharko da tratua eta horretarako **elektrotresna txikiak eraikitzen dituen enpresaren** batera jotzea da onena. Gertukoengana jotzea litzateke lehen pausoa. Besteak beste Jata edo Ufesa etxeak ditugu akorduan.

Diseinatu ondoren, ordea, toki bakoitzean kokatzeko **iturginaren** lana ezinbestekoa litzateke. Horretarako, lantaldean iturginik ez denez, lantalderatu edo bestela funtsezko bazkide gisa hartu beharko genuke. Makinak kokatzeaz gain, honek egin ditzake **berrikusketa** lanak makinetan arazorik egonez gero. Iturgina ez bada propio horretarako **teknikari** bat beharko litzateke eta makina egin duten enpresako ikuskariek ere har dezakete ardura hori.